

Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektoriala

Consejo Sectorial de Memoria Histórica

| | |
|---|---|
| Deialdia egin duena Convoca | Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora | 2020ko otsailaren 13a / 13 de febrero de 2020 Udaletxeko Pleno aretoa / Salón de Plenos del Ayuntamiento 18:00etan / A las 18:00 horas |
| Amaiera ordua Hora de finalización | 19:55etan / A las 19:55 horas |

GAI-ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

| | |
|--|--|
| 1.- Aurreko saioaren akta onartzea. | 1.- Aprobación del acta anterior. |
| 2.- 2020ko Kontseiluko saioen egutegi proposamena. | 2.- Propuesta de calendario para sesiones del Consejo del 2020. |
| 3.- Oroimen Historikoaren inguruko ekimenak. | 3.- Actividades en torno a la memoria Histórica. |
| 4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Memoria Historikoaren Legearen zirriborroari buruzko proiektuen gogoeta. | 4.- Reflexión sobre los proyectos en relación al borrador de la Ley de Memoria Histórica, de CCAA Vasca. |
| 5.- Bestelakoak, eskariak eta galderak. | 5.- Varios, ruegos y preguntas. |



BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|--|--|
| KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO | Alkatea Alcalde |
| GIZA ESKUBIDEETAKO ZINEGOTZI ESKUORDEDUNA CONCEJALA DELEGADA DE DERECHOS CIVILES | |
| TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | 1. EAJ-PNV 2. PP 3. ELKARREKIN PODEMOS 4. EH BILDU |
| KONTSEILUKO BOKALAK VOCALES DEL CONSEJO | 1. ARANZADI Zientzia Elkarte 2. Altunaberi Kultur elkarte 3. EDE Fundazioa (Bakeola) 4. Genozidioaren biktimen elkarte 5. Goldatu elkarte 6. LAB udal sail sindikala 7. Bortziriak historilarien elkarte 8. 1.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 1 9. Ospe bereziko pertsona/ Persona de especial relevancia nº1 10. Ospe bereziko pertsona/ Persona de especial relevancia nº2 |
| ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA | Hamaika Bide elkarte Lantxabe asoc. De vecinos Euskal Memoria Fundazioa Miguel Aranburu elkarte Valentin de Foronda Institutoa 2.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 2 Ospe bereziko pertsona 3/ Persona de especial relevancia nº3 |
| UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | Kontseiluaren Idazkaritza. Giza Eskubideen teknikaria Secretaría del Consejo. Técnica de Derechos Humanos |
| | Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzu burua Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social |
| PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN | 16 OHKSeKO pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitziburua, Giza Eskubideen atalburua eta Kontseiluko idazkaria. Emakumezkoak / Mujeres = 5 Gizonezkoak / Hombres = 13 16 personas integrantes del CSMH, además del Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social y la secretaria del Consejo. |



Saioaren bilakaera / Desarrollo de la sesión:

BATZORDEBURUAK bilkura hasitzat jo ondoren, honako GAI ZERRENDA lantzeari ekin diote:

1.- Aurreko saioko akta onartzea.

Aho batez onartu da.

2.- 2020ko Kontseiluko saioen egutegi proposamena.

Kontseiluaren 2020ko ohiko saioetarako honako egunak erabaki dira: ekainaren 3an eta urriaren 7an izango dira, udaletxeko batzar aretoan, 18:00etan.

3.- Oroimen Historikoaren inguruko ekimenak.

Atalaren zuzendariak azaldu du aurten zer jarduera jarri dituzten martxan oroimen historikoaren arloan.

Batetik, "Oroimenaren bidea egiten", ikastetxeentzako bisita gidatuak: jarduera hori jadanik finkatu egin da urte hauetan, eta oso harrera ona izaten jarraitzen du. Bestetik, adierazi du zer proiektuk irabazi duen nazien kontzentrazio esparruetara deportatu zituzten donostiarrren omenezko instalazio iraunkor bat jartzeko ideia lehiaketa, eta proiektu hori zertan datzan azaldu du. Espero dute aurten jartzea instalazioa Aieteko parkean.

Gainera, Aranzadiren proiektua, iaz amaitu zena, www.donostia1936.eus webgunearekin. Geroztik, biografia gehiago egin dira, lekukotasun gehiago grabatu dira eta informazio gehiago aurkitu da; gainera, zuzenketa batzuk ere sartu behar dira webguneko datu basean. Aranzadiko ordezkariak azaldu du, 100 bat pertsona jarri direla harremanetan haiekin informazioa emateko, eta 30 bat elkarrizketa dituztela webgunean sartzeko eta beste hamarren bat egiteko. Eskabide eta informazio berri horiek ikusita, dokumentazio lan honekin jarraitzea erabaki da.

Ospe bereziko pertsona 2k, galdetu du ikus al daitezkeen Aranzadirekin sinatutako akordioa eta proiektua, eta parte hartu al dezaketen beste ikerketa proiektu batzuk aurkeztuz. Lehendakariak erantzun du, batetik, Aranzadirekin sinatutako akordioa publikoa dela eta kontsulta daitekeela, eta, bestetik, zabalik daudela aurkezten diren beste proiektuetara.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

1.- Aprobar el acta de la sesión anterior.

Se aprueba por unanimidad.

2.- Propuesta de calendario para sesiones del Consejo del 2020.

Se acuerdan la siguientes fechas para las sesiones ordinarias del Consejo en el 2020: el 3 de junio y el 7 de octubre, las sesiones se celebrarán en el salón de Plenos del Ayuntamiento a las 18h de la tarde.

3.- Actividades en torno a la memoria Histórica.

El director del área, presenta las actividades en materia de memoria histórica puestas en marcha este año.

Por un lado, las visitas guiadas con los centros educativos "Caminar por la Memoria": una actividad consolidada durante estos años que continúa teniendo muy buena acogida. Por otro lado, se presenta y describe el proyecto ganador del concurso de ideas de una instalación permanente en memoria de las víctimas donostiarras que fueron deportados a los campos de concentración nazis. Se espera que a lo largo de este año se materialice la instalación en el parque de Aiete.

Además, en el proyecto llevado a cabo por Aranzadi que culminó el año pasado con la página web www.donostia1936.eus, se han realizado nuevas biografías, grabado nuevos testimonios y detectado más información junto con correcciones que deben ser incluidas en la base de datos de la web. El representante de Aranzadi, explica que unas 100 personas se han puesto en contacto con ellos para intercambiar información y que disponen de unas 30 entrevistas para incluir en la web y otras 10 pendientes de hacer. A la vista de estas nuevas solicitudes e informaciones, se ha propuesto continuar con la labor documental.

La persona de especial relevancia 2, pregunta si puede verse el acuerdo suscrito con Aranzadi y el proyecto, y si pueden participar en la presentación de otros proyectos de investigación. El Presidente responde por un lado, que el acuerdo con Aranzadi es público y que se puede consultar y, por otro lado, que se encuentran abiertos a nuevos proyectos que puedan presentarse.



Azkenik, atalaren zuzendariak jakinarazi du Giza Eskubideen atalerako 2020ko udal dirulaguntzetan 7500 euroko lerro bat bereizi dutela, oroimen historikoaren inguruko proiektuetarako. Gaineratu du, aurtengo Giza Eskubideen Zinemaldiaren programazioan, ikastetxeei eskaintzen zaizkien goizeko saioetan, *Vitoria, 3 de marzo* filma sartu dutela, 13 urtetik gorako gazteentzat.

Goldatuko ordezkariak galdetu du azaldutako jarduera horiek lehenengo sei hilabeteetarako al diren edo ba al dagoen zerbait gehiago egiteko asmorik. Atalaren zuzendariak azaldu du urteko jarduerak, alegia, irailaren 13ko ekitaldia eta bisita gidatu teatralizatuak irailean egingo dituztela eta beste batzuk ere sartu ahal izango direla.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Memoria Historikoaren Legearen zirriborroari buruzko proiektuen gogoeta.

Ospe bereziko pertsona 2k Euskal Autonomia Erkidegoko Oroimen Historikoaren Legearen zirriborroaren ibilbidea laburbildu ondoren, Altunaberriko ordezkariak azaldu du nola planteatu zen gaia Batzordean, eta Gogora Institutura egindako bisitaren berri eman du. Horri dagokionez, aipatu legeari alegazioak egiteko idatzi bat aurkeztu dutela adierazi du. Euskal masoneriaren memoria historikoaren defentsari dagozkion alegazio partikular eta propioetatik haratago, izaera orokorreko hiru eskaera egin dituzte. Lehenengoa, Salamancako Artxiboko artxiboetan Masoneria eta Komunismoaren Errepresio Auzitegiak (MLTB) frankismoko salbuespenezko auzitegi ideologiko bakarra, epaitu zituzten donostiar eta euskal herritar guztiak ikertzeko beharrari buruzkoa da. Bigarrena, berriz, Estatuko instantzia politiko eta judizialei euskal erakundeetatik auzitegi frankista guztien kondenak baliogabetzea eskatzeko beharrari buruzkoa da. Hirugarrena, MLTBk epaitutako pertsonen ohorearen aitortpena euskal erakunde guztietara zabaltzeko beharrari buruzkoa da, Donostiako Udalak egin zuen bezala.

Elkarrekin Podemos taldeko ordezkariak uste du garrantzitsua dela gogoeta hau kontseiluko talde guztiekin egitea, bakoitzaren ekarpenak jasotzeko. Berak ere uste du Euskal Autonomia Erkidegoan oroimen demokratikoa berreskuratzeko politika publikoak arautzea dela helburua. Era berean, beharrezkoa iruditzen zaio biktimen eskubidea gehitzea,

Por último, el director del área informa que en las subvenciones municipales de Derechos Humanos del 2020, se ha separado una línea 7500€ para proyectos relativos a la Memoria Histórica. Añade además, que en la programación del Festival de Cine y Derechos Humanos de este año, en las sesiones matinales que se llevan a cabo con los centros educativos, se ha incluido la película "Vitoria, 3 de marzo" para los y las jóvenes mayores de 13 años.

La representante de Goldatu, pregunta si las actividades expuestas son el plan para los primeros 6 meses o se pretende hacer algo más. El director del área explica que las actividades anuales como el acto del 13 de setiembre o las visitas guiadas teatralizadas se mantendrán en setiembre y que otras, también pueden ser incluidas.

4.- Reflexión sobre los proyectos en relación al borrador de la Ley de Memoria Histórica, de C.A. Vasca.

Después de que la persona de especial relevancia 2 resuma la andadura del borrador de Ley de Memoria Histórica de la C.A. Vasca, el representante de Altunaberri, explica como se planteó en la Comisión y comenta su visita al Instituto Gogora. Al respecto señala que han presentado un escrito de alegaciones a la citada Ley. Mas allá de las alegaciones de carácter particular y propio de la defensa de la memoria histórica de la masonería vasca, han realizado tres solicitudes de carácter general. La primera se refiere a la necesidad de investigar en los archivos del Archivo de Salamanca cuantos ciudadanos donostiaras y vascos fueron juzgados por el Tribunal de Represión de la Masonería y el Comunismo (TRMC), único Tribunal ideológico de excepción del franquismo. La segunda se refiere a la necesidad de reclamar a las instancias políticas y judiciales del Estado la anulación de las condenas de todos los tribunales franquista desde las instituciones vascas. La tercera se refiere a la necesidad de extender a todas las instituciones vascas el reconocimiento de la honorabilidad de las personas juzgadas por el TRMC tal y como ha hecho el Ayuntamiento de San Sebastian.

La representante de Elkarrekin Podemos, cree importante llevar a cabo esta reflexión con todos los grupos del Consejo para recoger sus aportaciones. Comparte que el objetivo es la regulación de las políticas públicas para recuperar la memoria democrática en la C.A. Vasca. Asimismo, ve necesario incorporar al



haien erreparazio morala eta juridikoa bermatuko duten neurriak hartuta. Hala, gonbita egiten du legearen zirriborroak dituen gabeziei buruzko gogoeta egitera.

EDE Fundazioko ordezkariak kexu agertu da, Gogora institutuak ez diolako bere taldeari ekarpenak egiten utzi, estatutuetan talde memorialista gisa agertzen ez delako, nahiz eta haien lana gai honen inguruan hezitzailea izan, zer gertatu den azaldu eta berriz halakorik ez gertatzeko hausnarketa bideratu (biktinek dituzten eskubideen artean, egia ezagutzea eta berriz ez errepikatzeko neurriak bultzatzea jasotzen dira. Arlo horietan bereziki dihardu EDE Fundazioa, nahiz Estatutuetan "Memoria historikoa" ez jasota izan). Uste du ez dela ahaleginik egiten Legearen zirriborroa egiten diharduten unean interes eta jakintza izan dezaketen gizarte eragileen arteko partaidetza bultzatzeko eta beraien ekarpena aintzat hartzeko.

Goldatuko ordezkariak laburki azaldu du Legearen zirriborroak zer bide egin duen Goldatu plataformatik. Azaldu du hiru hiriburuetan antolatu zituztela zirriborroa aztertzeko foroak, eta barkamena eskatu die gonbidatu ez zituzten taldeei, foro horiek ez baitzeuden itxita inorentzat. Kontseiluko ordezkariari eskatu die arretaz egoteko hurrengo legealdian, legea egiteko prozesuan parte hartzeko.

Lehendakariak eskertu ditu egindako gogoetak, eta positibotzat jo du oroimenaren euskal lege bat egitea eta lege hori egiteko prozesuan talde guztiek parte hartu ahal izatea.

5.- Eskariak eta galderak.

Gogora ekarri dute Jose Angel Ascunce, Hamaika Bide elkarteko ordezkaria, duela gutxi zendua. Bortziriak historiagileen elkarteko ordezkariak "Sociología del Franquismo" liburua azpimarratu du haren obratik. Lehendakariordeak erbestean egin zuen lana azpimarratu du, bai eta Koldo Mitxelena erbesteari buruz emandako urteko hitzaldiak ere. Horrez gain, udal lokal bat eskatu du, haren artxiboa eta funts bibliografikoa gordetzeko. Lehendakariak azaldu du udal lokalen eskaerak formalki eskatu behar direla eta batzorde teknikoak esleitzen dituela gero.

LABeko ordezkariak dokumentu bat banatu du. Dokumentu horretan, fusilatutako donostiarrekin batera, Udalarekin harreman

derecho de las víctimas, con medidas que garanticen su reparación moral y jurídica. Así, invita a reflexionar al Consejo sobre las carencias del borrador de Ley.

La representante de EDE Fundazioa, lamenta que a su grupo se les haya impedido desde el Instituto Gogora hacer aportaciones ya que en sus estatutos no figuran como grupo memorialista, aunque su labor en esta materia sea educativa con el objeto de difundir los hechos ocurridos en relación a la garantía de no repetición (entre los derechos que tienen las víctimas se recoge el de conocer la verdad e impulsar medidas para que no se vuelva a repetir. La Fundación EDE actúa especialmente en estas áreas aunque en los Estatutos no se recoja la "memoria histórica" como tal). Considera que no se hace ningún esfuerzo para impulsar la participación entre los agentes sociales que puedan tener interés y conocimiento en la elaboración del borrador de la Ley, reconociendo su contribución.

La representante de Goldatu, hace un resumen de la andadura del borrador de Ley desde su plataforma Goldatu. Explica que organizaron foros para estudiar el borrador en las 3 capitales y pide disculpas a los grupos que no fueron invitados ya que no estaba cerrado a nadie. Pide a las personas representantes del Consejo que estén atentas en la próxima legislatura para participar en su confección.

El Presidente agradece las reflexiones y ve de manera positiva la creación de una Ley de Memoria Vasca en donde todos los grupos puedan participar en el proceso de creación.

5.- Ruegos y preguntas

Se recuerda a José Angel Ascunce representante de la asociación Hamaika Bide, recientemente fallecido. El representante de la asociación de historiadores Bortziriak, destaca el libro "Sociología del Franquismo" de entre su obra. El vicepresidente, destaca también su trabajo en relación al exilio, sus conferencias anuales sobre el exilio en Koldo Mitxelena y demanda un local municipal para su archivo y fondo bibliográfico. El Presidente, explica que las solicitudes de locales municipales se deben solicitar formalmente y que la adjudicación las lleva una Comisión técnica.

El representante de LAB, reparte un documento en donde se recogen junto a las víctimas donostiarras fusiladas aquellas que tienen una



zuzena zuten beste biktima batzuk jasotzen dira: exekutututako edo espedientea irekitako funtzionarioak, zinegotziak eta abar. Uste du Udala legitimatuta dagoela horrekin epaitegietara jotzeko.

Elkarrekin Podemoseko ordezkariak baieztatu du badaudela epaitegietara jotzeko etsenpluak, eta gaineratu du, Aranzadik bildutako lekukotasunen bidez, Udala ager litekeela instrukzioko epaitegietan udal kasuekin. EAJ-PNVko ordezkariari beharrezkoa iruditu zaio aztertzea zer kasu defenda daitezkeen epaitegi batean, Aranzadiren ikerketa oinarritzat hartuta.

Ospe bereziko pertsona 2, ados agertu da horrekin eta esan du kasu bakoitzak atal dokumentala, periziala eta testimoniala izan behar dituela epaitegira eramateko. Horregatik, berriz proposatu du talde bat sortzea, epaitegietan zein kasu onar daitezkeen ikusteko, aurreko kasuetako gomendioak kontuan hartuta. Aranzadiko ordezkariak argitu du webgunean agertzen diren ia 7000 pertsona horien artetik karpeta bat dagoela baina zuzeneko lekuko bat izatea oso zaila dela; izan ere, 36-45eko kasuak dira, eta lekukotasun proba gehienak bigarren mailakoak dira. 70eko urteetako kasuen zuzeneko lekukotasunak daude soilik. Gaineratu du, lan horretan oso garrantzitsua dela Gogora institutuak apartatu juridiko jakin bakoitzerako ezartzen dituen giza eskubideen urraketen sailkapenari erantzutea.

Azkenik, erabaki dute lan talde bat sortzea, Udala instrukzioko epaitegietan zer kasutan ager daitezkeen aztertzeko. Lehendakariak eskatu du mezu bat bidaltzeko idazkaritzari, lan talde horretan parte hartu nahi duten pertsonen beste deialdi bat bidaltzeko.

EDE Fundazioko ordezkariak eskerrak eman nahi dizkio Kontseiluari Aieten abenduan antolatu zuten ekitaldia zabaltzeagatik, eta jakinarazi du azken ondorioak eta dokumentuak bidaliko dizkietela parte hartzaileei.

LABeko ordezkariak, azkenik, esan du irailaren 13ko ekitaldirako omenaldi bateratu bat proposatuko dutela, eta taldeei iritzia eskatu die, hurrengo bileran zehazteko.

relación directa con el Ayuntamiento; funcionarios ejecutados o depurados, concejales, etc. con los que cree que el Ayuntamiento está legitimado para poder ir a los juzgados.

Elkarrekin Podemos confirma haber ejemplos para ir a los juzgados y añade que a través de los testimonios recabados por Aranzadi el Ayuntamiento podría personarse en los juzgados de instrucción con casos municipales. El representante de EAJ-PNV, ve necesario hacer una revisión de qué casos pueden ser sostenibles en un juzgado en base a la investigación de Aranzadi.

La persona de especial relevancia 2 se muestra de acuerdo afirmando que cada caso debe tener su parte documental, pericial y testimonial para poder llevarla al juzgado. Por lo que retoma su propuesta de crear un grupo para ver, qué casos puede prosperar en los juzgados teniendo en cuenta las recomendaciones de casos precedentes. El representante de Aranzadi, aclara que de las casi 7.000 personas que aparecen en la web hay una carpeta pero tener una fuente testimonial directa es muy difícil ya que son casos del 36-45 y la mayoría de las pruebas testificales son secundarias, solo habría directas de casos de los años 70. Agrega que en esta labor es importante responder a la clasificación de vulneraciones de los derechos humanos que se establece desde el Instituto Gogora para cada apartado jurídico concreto.

Finalmente, se acuerda crear un grupo de trabajo para analizar lo casos municipales en los que el Ayuntamiento pueda personarse en el juzgado de instrucción. El Presidente pide que se envíe un correo a Secretaria para que se articule una nueva convocatoria de las personas que estén interesadas en participar en este grupo de trabajo.

La representante de EDE Fundazioa, quiere agradecer al Consejo por la divulgación del evento que organizaron en diciembre en Aiete e informa de que las conclusiones y documentos finales se enviarán a las personas participantes.

El representante de LAB, por último, comenta que para el acto del 13 de setiembre van a proponer un homenaje conjunto y solicita a los grupos su opinión para concretarlo en la próxima sesión.



Hala, beste aztergairik ez denez, 19:55ean bukatutzat jo dute bilera.

Aktaren egilea: idazkaria

No habiendo más temas que tratar, se da por finalizada la reunión a las 19:55 h.

Recoge el acta: la secretaria